

## Mondragon Unibertsitateko irakasle bat, Fabrikazio Ingeniaritzako Nazioarteko Akademiako kide

2009/05/12

Ivan Gallego Mondragon Unibertsitateko irakaslea, orain gutxi Fabrikazio Ingeniaritzako Nazioarteko Akademiako (CIRP) kide hautatu dute. Akademia hau munduko erakunde garrantzitsuenak da fabrikazio ikerketa sustatzen, honako arlo hauetan: diseinua, optimizazioa, kontrola eta fabrikazio prozesuen kudeaketa, makinak eta sistemak.

Beste erakunde batzuetan sartzeko ez bezala, CIRPera sartzeko hautaketa prozesu zorrotz bat pasa behar da, zeinetan ikerketan eta berrikuntzan erakutsitako bikaintasuna baloratzen den. Akademiak gutxi gorabehera 220 kide ditu 40 herrialde industrializatuetakoak eta honen helburua maila altueneko nazioarteko sare bat garatzea da, industria eta unibertsitatearen arteko ikerketa bultzatzeko. Horrela ekonomiaren hazkunde globalari eta gizartearen ongizateari ekarpen bat egiteko (<http://www.cirp.net/>)..



Ivan Gallegoren lorpen garrantzitsuenen artean aipatzekoa da Taylor domina lortzeko 2008an hiru finalisten artean egotea. Sari hau nazioarteko sarien artean prestigio gehien duena da, fabrikazioaren arloan 35 urte baina gutxiago dituzten ikertzaileek zuzendutako lanak saritzen ditu. Era berean, Ivan Gallegok Makina-erreminten eta Fabrikazio-teknologiaren XV. Kongresuko Kutxa saria jaso zuen. Bestetik, Zientzia eta berrikuntza Ministerioak finantzatzen duen Micromanufacturing proiektuko ikertzaile nagusia da, proiektu honetan 20 erakundek parte hartzen dute eta 12 milioi euroko aurrekontua du. Bere azken merituen artean honako hauek aipatu ditzakegu: azken bi urteetan 4 doktore-tesi zuzendu ditu eta bi produktu industrial garatu: MICROM, mekanizazio prozesuen monitorizaziorako sistema patentatu bat eta Estarta SUA, zentrorik gabeko artezketa prozesuak martxan jartzeko software bat. MICROM sistemak orain dela gutxi PROSENS ekarri du, firma berritzaile bat, zeinak Toribio Echevarria saria jaso zuen honen azken edizioan.